

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak 2021

Gizarte-beharrak ez bete
eta propagandarekin
ezkutatzea

2021eko urtarrila



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. 2020ko aurrekontu-politikaren balorazioa	4
3. 2021eko aurrekontu-proiektu orokorra	5
4. Ondorioak	11

1. SARRERA

COVID-19aren pandemiak 2020 hasierako egoera goitik behera aldatu du, eta krisi sanitario, ekonomiko eta sozialean murgildu gaitu, zeinak gurean eragin zuzena izan duen pertsona eta erakunde guztiengan. Oraingoan, txertatze prozesua hasiagatik ere, birusa ez dago inola ere kontrolpean eta antza bere ondorioak 2021 urtean ere luzaz iraungo dute; honek gobernuen politika ekonomikoa eta aurrekontuak baldintzatuko ditu.

Aurrekontuei dagokienez, krisiaren ondorioak anitzak izan diren arren, nazioartean bi orokorrak izan dira: batetik, diru-bilketa zeharo jausi da, eta hori zorpetze publikoaren bidez konpentsatu da; bestetik, gastu publikoak hazkunde handia izan du, krisi hirukoitzaren ondorioei aurre egite aldera.

Horrenbestez, Europar Batasunak 2020 eta 2021erako “arau fiskal” direlakoak eten egin ditu. Hots, administrazioek ez dute ekitaldi horietan defizit eta zor publiko muga aintzat hartu behar, hurrenez hurren %3 eta %60koak zirelarik. Honen ondorioz erakundeek gastu publikoaren hazkundeari aurre egin ahal izan diote, sarrerak murrizten ari zirenean, zorra jaulkiz. Haatik, ondoren ikusiko dugunez, Eusko Jaurlaritzak ez du aukera hau baliatu, eta aurtengo gastu-aurrekontua murriztu egin du.

Edonola ere, 2021eko aurrekontuari erreparatu baino lehenago, 2020koa nola gauzatu den analizatu behar da. Joan den urtean ezinbestekoa zen baliabideak behar beste gehitzea, baina Jaurlaritzak etengabe propaganda egin arren, egiaztatu dugu bere ahalegina oso eskasa izan dela. Gauza bera gertatzen da 2021erako proiektuarekin, “historiako aurrekonturik hazkorrenak” omen diren horiekin alegia; benetan oso urrun geratzen dira COVID-19ak eragindako beharrezan osatzetik.

2. 2020KO AURREKONTU-POLITIKAREN BALORAZIOA

Eusko Jaurlaritzak 2021erako prestatu duen aurrekontu-proiektua epaitzeko, aurrez arlo horretan 2020an zer egin duen aztertu beharra dago. Lehen atal honetan analizatuko da lehenik ekitaldian izan den diru-bilketa eta ondoren gastuak benetan nola gauzatu diren.

Sarrerei dagokienez, EAEn Foru Aldundiek biltzen dituzte zergak. 2020ko aurreikuspenen arabera, itundutako zerga bidez %2,5 gehiago biltzekoak ziren. Hala ere, urtarrila eta azaroa bitartean Foru Ogasunek aurreko urtean baino %10,9 gutxiago bildu zuten. Eusko Jaurlaritzak biltzen den diruaren %70 jasotzen duenez, 2020ko aurrekontuan aipatzen zen kopuruarekiko 1.550 milioi euro galduko ditu (Aldundietatik 8.929 milioi jasoko ditu, eta ez aurrekontuetan hasieran jasota zeuden 10.479 milioiak; galera %14,5ekoa da).

Bilketan izandako galera horren zati bat soilik konpentsatzen da zorpetze handiagoaren bidez. 2020 itxierarako kalkulatu den zor jaulkipena 2.095 milioi euro zen, hasieran aurreikusitako 886 milioiak baino 1.210 gehiago. Beraz, ez da egia diru-bilketak izandako galera osoa zorpetzearekin kitatu denik: 340 milioi ez dira osatu.

2020ko aurrekontuko gastua nola gauzatu den analizatuz gero, egiaztatzen da beste baieztapen bat ez dela bete: Eusko Jaurlaritzak ez du inola ere aurrekontuko gastuaren igoera handirik erabaki pandemiaren ondorio sanitario, ekonomiko eta sozialei aurre egiteko. 2020rako aurrekontuak, zeina 2019ko abenduaren 27an bozkatu zen, guztira 11.774 milioi euroren gastua jaso zuen. Aurreikusitako itxiera 11.941 milioirena izango da, hots, hasierako aurrekontuan baino 170 milioi gehiago (%1,5 besterik ez). Gai honi buruz hainbat iruzkin egin daiteke.

COVID-19ak besteak beste honako arlo sozialetan izan du eragina:

- Osasun sistema (zeina dagoeneko pairatzen ari zen azken hamarkadan aplikatutako murrizketa politikaren kalteak) zeharo tenkatzen ari da, eta baliabide askoz ugariagoak eman behar zitzaizkion.
- Hezkuntza sistema testuinguru berri bati egokitu behar izan zaio, eta hau irakasle zein ikasleen ahaleginari esker gertatu da.
- Langabezia eta prekarietatea areagotu izanak pobrezia eta bazterketa soziala asko hedatzea ekarri du, izan ere, sektorerik ahulenei eragin baitie, sistema ekonomikoaren ertzetan zeudenei; ez zaio erantzun egokirik eman gizarte-prestazioen bidez edota bestelako neurrien bidez, bermatzeko pertsona kaltebera guztiei oinarrizko hornigaiak izateko eta etxebizitza bat izateko edo ez kanporatzeko eskubidea.

Beraz, premiarik handiena zenean Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua gehitzea, bere eskuduntzak batik batik arlo hauetan kokatzen direlarik, are nabarmenagoa izan da horri uko egin izana. Argi geratu da bere lehentasuna ahal den gutxien gastatzea zela, eta ez zeuden behar sanitario, sozial eta ekonomikoak asetzea.

Alabaina, urte guztian propaganda kanpainak ez du etenik izan. Asteoro eman digute Gobernu-Kontseiluaren bileretan erabakitako era guztietako planen berri. ELAk behin eta berriz salatu izan du iragarpen horiek ez zutela mamirik, COVID-19aren ondorioei ez zitzaiela benetan aurre egiten. Beste kolektibo batzuen salaketak ere ugariak izan dira: ase gabeko beharrianak, webguneen kolapsoa, ordaintzen ere hasi ez diren laguntza partzialak, etab.

2020ko aurrekontu-itxieraren datuek errealitate hori berresten dute. Milaka milioi iragarri zituzten, baina COVID-19aren inguruko programek iaz 390 milioi euro baino ez dituzte izango (Jaurlaritzaren aurrekontuaren %3 besterik ez), gehienak Osasunean (217 milioi) eta ostalaritzara derrigor bideratu behar izan dituztenak (60 milioi). Besteak kopuru oso urriak dira; argi geratu da pandemiaren ondorioei aurre egiteko benetako borondaterik ez zegoela. Horren adierazgarri,

hezkuntzan gertatu dena: Jaurlaritzak dio 2020an 45,8 milioi euro erabiliko direla COVID-19aren inguruko programetarako, baina soilik 11,6 milioi izango dira langileak kontratatatzeko. Non dira iragarri zituzten 1.000 irakasleak? Eta behar diren gainerako langileak?

Osasun eta Hezkuntza sailetara bideratu den aurrekontuaren analisiak erakusten du kopuruak gehitu direla, baina ez asko. Osasunera 2020an guztira 4.135 milioi euro bideratuko dira, eta Hezkuntzara, 3.031, hots, hasieran aurreikusitakoa baino 192 eta 97 milioi gehiago. Beste sail sozial batzuetan, esaterako Etxebizitzan, 2020rako gauzatzea espero zen gastua (134 milioi) aurrekontuan jasotako kopuru urria (155 milioi) baino askoz apalagoa zen.

Eusko Jaurlaritzaren 2020ko aurrekontua (milioi euro)

	Hasieran	Itxiera aurreikuspena	Aldaketa
Osasuna	3.943	4.135	+192
Hezkuntza	2.934	3.031	+97
Etxebizitza	155	134	-21

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontu-proiektua

2020ko guztizko gastua 170 milioi handiagoa izango da, ez gehiago, nahiz eta Espainiako Gobernuak hasieran ezarritakoa baino 570 milioi gehiago transferitu dion. 2020an espainiar Gobernuak hainbat funts sortu du gobernu autonomikoei transferentziak egiteko. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak Madrildik espero zuena baino 570 milioi euro gehiago jaso du (690, aurrekontuko 120en aldean). Beraz, Eusko Jaurlaritzak bere aurrekontua gehitzean Madrildik jaso duen kopuru handiagoa bera ere ez du erabili.

Atal honetan aipatu denaren arabera ondoriozta daiteke 2020ko aurrekontua kudeatu dela, sail orokorretan, pandemiarik izan ez balitz bezala.

Eusko Jaurlaritzaren 2020ko Aurrekontua (milioi euro)

	Hasieran	Itxiera aurreikuspena	Aldaketa
Foru Aldundien sarrerak	10.479	8.929	-1.550
Espainiako Gobernuaren transferentziak	120	690	+570
Zor jaulkipena	886	2.095	+1.210
Guztizko gastua	11.774	11.941	+170

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontu-proiektua

3. 2021EKO AURREKONTU-PROIEKTUA

3.1. Orokorra

2021eko aurrekontu-proiektua aurkeztu da une batean non ez dagoen argi ekonomiak zer bilakaera izango duen. Pandemiaren hirugarren olatuan sartzen ari gara, eta horrenbestez aurtengo hazkunde ekonomikoari buruzko balioespenak kontu handiz hartu behar dira. Nolanahi ere, azken kalkulu ofizialen arabera, BPGak 2020an %9,4ko jaitsiera erreala izan du, eta 2021eko suspertzea %8,6koa izan daiteke. Honi erantsi beharko litzaioke enpleguaren inguruko aurreikuspenek diotena, alegia

pandemia aurreko kopuruetatik dezente beherago geratuko garela. Beraz, argi dago 2021ean Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak igoera handia izan beharko lukeela.

Eusko Jaurlaritzak prestatu duen aurrekontu-proiektuan 2021erako 12.442 milioi euroren gastua aurreikusten da. Honek esan nahi du 500 milioi euro gehiago izango direla (+%4,2) 2020an gauzatutako aurrekontuarekiko (urte honetarako kitapen aurreikuspenaren baitan).

Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren benetako ahalmen ekonomikoa analizatze aldera aurrekontutik bi atal kendu beharra dago: zorraren ordainari (983,2 milioi) eta herrilanen aurrerapenari dagozkionak; azken hau aurrerago Espainiako Gobernuak itzuli behar du (63,2 milioi AHT eta Hegoaldeko Trenbide-Saihesbiderako). Beraz, Jaurlaritzak 2021ean bere sailetarako 11.396 milioi euro izango ditu, hau da, soilik 2020ko aurrekontu kontsolidatua baino 338 milioi euro gehiago (%3 eskasa).

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektua, AHT eta zor publikoa kenduta (milioi euro)

	2021
Guztizko aurrekontua	12.442
AHT aurrerapena	63
Zor publikoa	983
Guztira, AHT eta zor publikoa kenduta	11.396

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontu-proiektua

3.2 Osasuneko aurrekontua, txikiegia

2021erako Osasun sailak 4,183,9 milioi euroren aurrekontua izango du, hots, 2020ko itxiera aurreikuspena baino 48 milioi gehiago; beraz, sail honetako igoera %1,16koa izango da. 2021ko ekitaldiarekiko alderik nabarmenena datza *COVID-19ak eragindako krisiaren kontrako neurriak* izeneko sailean, 185 milioi euro, zeintzuk batik bat bideratuko diren osasun zentroetako lehen arreta hobetzera, baina langile gehiago hartzeko gastu gehiago aurreikusi gabe. Egungo egoeran, non oraindik ez dagoen bat ere argi pandemiak zein bilakaera izango duen eta definitu gabe dauden txertatze planak, aurreikus daiteke 2021eko osasun gastua eta langile beharrak oso handiak izango direla, baina gobernuak eman nahi duen erantzuna oso ahula da.

Osasun sailaren gastuak BPGan duen pisua analizatuz gero, 2020an puntubete gehitu da, batez ere lehenago aipatu den BPGaren jaitsiera handia medio. 2021ean osasunera bideratutako gastu publikoak aberastasun orokorrean duen zatia ia puntu erdi eroriko litzateke (-0,43). Aipatu beharreko beste xehetasun bat da Osasuneko gastu publikoa 2021ean 2010eko mailan geratuko dela, joan den hamarkadan politika murriztailea aplikatu izan delako, eta horrek ratioaren jaitsiera nabarmena eragin duelako.

Datuok erakusten digute ezen, 2020an bizi izan dugun eta 2021ean pairatuko dugun salbuespenezko egoera gorabehera, gobernuak osasun arloan egingo duen ahaleginak ez dituela COVID-19ak sortutako beharrak asetuko.

Osasuneko gastua (milioi euro) 2010-2020

	2010	2015	2020 (aurrekontua)	2020 (itxiera aurreikuspena)	2021
Milioi €	3.542	3.429	3.943	4.135	4.183
Osasuna / BPG	%5,32	%5,01	%4,78	%5,75	%5,32

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontu-proiektua, Eustat

3.3 Hezkuntzan, 2021eko gastuak 2020koak baino pisu gutxiago izango du

Hezkuntza sailari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 3.108 milioi euroren aurrekontua aurkeztu du, 2020ko itxiera aurreikuspena baino 77 milioi gehiago (%2,5eko igoera). Arlo honetan ere bada *COVID-19 neurriak* izeneko sail berezi bat, 95 milioi euro, eta hau da igoera txiki haren arrazoa. Sail honen baitan langile kopurua gehitzeko 50 milioi euro besterik ez da aurreikusi. Osasun sailan bezalaxe, Hezkuntzan gobernuak egiten duen ahalegina oso motz geratzen da egoera lazarri honen aurrean.

BPGarekiko pisua alderatuz gero, osasunean ikusitako joeraren antzeko zerbait gertatzen da (jaisiera handia azken hamarkadan, igoera 2020an BPGaren hondoratzea medio eta 2021ean berriz ere atzerakada. Izan ere, 2021eko emaitza 2010ekoa baino askoz apalagoa litzateke).

Hezkuntzako gastua (milioi euro) 2010-2020

	2010	2015	2020 (aurrekontua)	2020 (itxiera aurreikuspena)	2021
Milioi €	2.783	2.560	2.919	3.031	3.108
Hezkuntza / BPG	%4,18	%3,74	%3,54	%4,22	%3,95


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontu-proiektua, Eustat

3.4 Osasun eta Hezkuntzako aurrekontua, Europako batez bestekotik urrun

Osasunak eta hezkuntzak BPGarekiko duten pisu txikia agerian geratzen da datuak Europako gainerako herrialdeekin alderatuz gero. 2018an (azken datu konparatiboak), EAEk osasunean egindako gastua BPGaren %4,81ekoa izan zen; EB-28ko batez bestekoa, berriz, % 7,1ekoa, aldea %2,3koa izanik. Europako ekonomiarik aurreratuenek %7 baino gehiago gastatu zuten osasunean, eta Danimarka izan zen baliabide gehien bideratu zituen herrialdea (% 8,3).

BPGaren %2,3ko alde horrek, Europako batez bestekoarekin alderatuta, 1.810 milioi gehiago ekarriko lituzke 2021eko aurrekontuan osasunean, eta horrek %43 handituko luke partida hori. Datu horiek erakusten dute osasunera bideratzen diren baliabideak ez direla nahikoak eta zergatik EAE arlo honetan Europako azken muturrean dagoen.


Gastu publikoa osasunean (% BPG). UE-28, 2018



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren 2021eko Aurrekontu Proiektuko, Eurostateko, Eustateko eta Eusko Jaurlaritzako datuak oinarri hartuta

Hezkuntzako gastuari dagokionez, 2018an BPGarekiko pisua EAEn %3,7koa izan zen, Europako batez bestekoa puntu bat gorago zegoen bitartean (%4,7). Alde horrek, hezkuntzan 787 milioi euro gehiago inbertitzea ekarriko luke, Eusko Jaurlaritzak inbertituko duena baino %25 gehiago. Datu horiek erakusten digute hain garrantzitsua den esparru honek oso pisu txikia duela EAeko ekonomian, Bulgaria, Hungaria eta Errumania bezalako herrialdeen gaineratik soilik.

Gastu publikoa hezkuntzan (% BPG). UE-28, 2018



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren 2021eko Aurrekontu Proiektuko, Eurostateko, Eustateko eta Eusko Jaurlaritzako datuak oinarri hartuta

Osasuna eta hezkuntzako gastua Europako batez bestekoaren mailara berdinduko bagenu, Eusko Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontua 2.597 milioi euro inguru handitu beharko litzateke.

3.5. Inbertsioa etxebizitzan

2021eko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan, etxebizitzarako aurrekontu-zuzkidura 159,6 milioi eurokoa da, 2020ko itxiera-aurreikuspenarekin alderatuta, 25 milioi euro handituz. Ezin da ulertu etxebizitzaren arloan jendearen beharrak nabarmen handitzen ari diren bitartean aurrekontua partida irrigarri horretan geratzea. 2019an 223,4 milioi euro bideratu zirela kontuan hartuta, zenbatekoa 63,8 milioi euro murriztu da. Gainera, gogorarazi behar da 2009an partida horretarako aurrekontua 217,4 milioi eurokoa izan zela.

Etxebizitzarako aurrekontu zuzkidura (milioi eurotan).

2019	2020	2021
223,4	134,9	159,6

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuen Proiektua 2021

3.6. Murrizketak gizarte-prestazioetan

Aurrekontu-proiektuak planteatzen du DSBEaren zenbatekoa %1,8 handitzea, 2020an aplikatzen zenaren aldean. Erabaki horren atzean ezkututzen da, beste behin ere, Eusko Jaurlaritzak 2008an onartutako legea ez betetzea proposatzen duela. Lege horren arabera, DSBEa LGSren %86an kokatu behar da, pentsiodunentzat izan ezik, kasu horretan LGSren %100ean finkatzen baita.

Horrela, DSBE orokorraren zenbatekoa 706,21 eurokoa izango litzateke, eta ez 953,17 eurokoa, 2008ko Legea aplikatuz izan beharko zena. Lege hori ez da aldatu, eta, beraz, urtero Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak erabiltzen dira DSBEaren zenbatekoan murrizketa handiak aplikatzen jarraitzeko. Zehazki, eta 2021erako LGSren igoera zehazteke dagoen arren, hilean 247 euro murriztuko litzateke DSBEaren zenbatekoa. Pentsiodunen kasuan, murrizketa handiagoa da; izan ere, errenta bermatua 810,28 eurokoa izango litzateke 2021ean, hau da, indarrean dagoen Legeari legokiokeena baino ia 300 euro gutxiago (1.108,33 euro).

DSBEaren zenbatekoa 2021ean. Bakarrik bizi diren pertsonak

	Aurrekontua 2021	2008ko LEGEA	Murrizketa
DSBE orokorra	706,21	953,17	-247 EURO
DSBE pentsiodunak	810,28	1.108,33	-298 EURO

Gainerako gizarte-prestazioei dagokienez, aurrekontuak azken ekitaldietako joerari eusten dio:

- Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoaren (EPO) zenbatekoa hileko 250 eurotan izoztu da, gehienez ere. Ez da beharrezkoa gogoratzea zenbateko hori ez dela iristen, ezta urrutitik ere, merkatu librean alokairu duin bat ordaindu ahal izateko mailara.
- Orain dela bost urte baino gehiago onartutako Etxebizitzaren Legearen garapenak EPO prestazioa jasotzeko aukera kentzea ekarriko duen aurreikuspena jasotzen da berriz ere, eta, beraz, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa baino ez litzateke geratuko (250 eurotan izoztu egiten da ere), eta horrek murriztu egingo luke prestazio mota horiek jasotzeko eskubidea gaur egun eskuratzen dutenen zati handi bati.


- Gizarte-larrialdietarako laguntzetarako (GLL) aurrekontua 42,5 milioi eurokoa da. Gizarte-larrialdietarako laguntzak oraindik ere ez dira eskubide bat, horretarako bildutako aurrekontu-zuzkidura amaitzen denean, hartzaileak prestaziorik gabe geratzen baitira, Gobernuak arlo horretarako aurrekontu-zuzkidura handitzen ez badu.

3.7. Zor eta zor biziako aurrekontua

983,2 milioi euroko aurrekontua bideratu nahi da 2021ean zorra ordaintzeko, hau da, aurrekontuaren %7,9 (AHTrik gabe). Horrela, zorraren ordainketa 150,3 milioi euro haziko da 2020arekin alderatuta. Horrek esan nahi du % 18,1eko igoera egon dela 2020ko itxiera-aurreikuspenarekin konparatuz, hau da, alde handienarekin igo den partida; izan ere, osasunean eta hezkuntzan, aipatu bezala, % 1,16 eta % 2,5 baino ez da igo.

Eusko Jaurlaritzaren iragarpenen arabera, 2020a 10.071 milioi euroko zor biziarekin ixtea aurreikusi dute, hau da, 2019an baino 1.244 milioi gehiago. Lehen puntuan aipatu den zorraren jaulkipenaren handitzeagatik gertatzen da hori. Gainera, horrek esan nahi du datozen urteetan Eusko Jaurlaritzak ez diola zorraren amortizazioari bakarrik aurre egin beharko, baita interesen ordainketari ere. Zentzu horretan, zor publikoak erabat baldintzatzen du aurrekontu-politika. Aipatzekoa da ere zor publikoa negozioa dela bankuentzat eta finantza-erakundeentzat, Europako Banku Zentraletik jasotzen dutena baino interes handiagoan uzten baitute dirua.

Zor biziaren eta zor biziaren bilakaera BPGaren gainean (milioi eurotan)



Iturria: geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren 2021eko Aurrekontu Proiektuko, Eustateko eta Eusko Jaurlaritzako datuetan oinarrituta.

3.8. Diru-sarrerak, fiskalitatea eta gastu fiskalak

Eusko Jaurlaritzak argi utzi du bere jarrera diru-sarreraren igoera nabarmena ekarriko duen erreforma fiskalaren inguruan. Erreforma horri uko egiteak datorren urterako zor gehiago jaulkitzea ekarriko du. 2021erako aurrekontuaren arabera, zorraren jaulkipena 2.552,4 milioi eurokoa izango da, hau da, 2020an baino 457 milioi euro gehiago. Horrek argi uzten du Eusko Jaurlaritzak orain arte bezala jokatzeko jarraituko duela. Zorraren jaulkipenak Eusko Jaurlaritzaren diru-sarreraren % 20,5 bide horretatik etorriko dela esan nahi du, eta horri aurre egin beharko zaio etorkizunean.

2021erako EAEko diru-sarreraren aurrekontuaren laburpena (milioi eurotan)

	€	%
Foru Aldundiak	9.619,1	77,3%
Bestelako baliabide instituzionalak	186,8	1,5%
Zerga propioak	12,8	0,1%
Bestelako baliabideak	71,2	0,6%
Zor publikoa	2.552,4	20,5%
GUZTIRA	12.442	100%

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuen Proiektua 2021

Zentzu horretan, zergen egiturak goitik behera berrikusi eta aldatu behar dira, enpresen eta errenta altuen interesak bultzatzeko diseinatuta baitaude. Ez da justizia sozialik egongo bidezko zerga-sistematik gabe, justizia fiskala aberastasunaren birbanaketa eta zerbitzu publikoak bermatzeko adinako diru-bilketa bezala ulertuta.

Horregatik, zor horren ordainketari aurre egin ahal izateko etorkizunean murrizketarik egin gabe, erreforma fiskala beharrezkoa da. Erreforma horretan hainbat gai jorratu behar dira, eta ELAK dagoeneko proposatu zituen diru-sarrera publikoak handitzeko neurri zehatzak. Horien artean daude:

1. Sozietateen gaineko Zerga: kenkariak ezabatzea eta errekaru berezi bat ezartzea 2019ko Sozietateen gaineko Zergaren aitortpenean, urte horretako mozkinen %20koa. Horrela, EAEn 1.750 milioi euro lortuko lirateke.
2. Ondarearen, Aberastasunaren eta Aberastasun Handien gaineko Zerga. Errekargu espezifiko bat ezartzea, progresiboa izango dena eta %1 eta %10 artean kokatuko dena. Horrela, 2.000 milioi gehiago bilduko lirateke EAEn.
3. PFEZ progresiboago bat: eskala aldatzea, gehieneko tasa marjinala %60ra eramanez; kapitalaren tarifa espezifikoa ezabatzea. Kuantifikazioa eskalaren progresibitatea handitzearen arabera izango litzateke.

Gehien dutenekiko desberdintasuna eta mesede-tratamendua eragiten duen beste elementuetako bat zerga guztietan dauden zerga-onurak dira. Zerga-onurak salbuespenak, hobariak eta kenkariak dira, eta horiei esker ordaintzen den zenbatekoa murrizten da. Eusko Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontua 12.379 milioi eurokoa da (AHTko eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbideko partidak kenduta). Eta onura fiskalen aurrekontua, hau da, ordaintzeari uzten zaiona, 6.032,3 milioi eurokoa da, aurrekontuan jasotakoaren ia erdia.

Beharrezkoa da errenta altuei eta enpresei mesede-tratua emateko soilik balio duten onura fiskal guztiak sakonean berraztertzea eta aldatzea. Injustizia sozialaren elementu bat da. Eta onura fiskalez hitz egiten dugunean, Sozietateen Gaineko Zergaz ere hitz egin behar dugu. Enpresei eta kapitalari ematen zaizkien zerga-onurek galera handiak eragiten dizkiete diru-kutxa publikoei. 2021erako Sozietateen Gaineko Zergaren eta Ondarearen Gaineko Zergaren gastu fiskalen aurrekontua 660 milioi eurokoa da.

4. ONDORIOAK

Eusko Jaurlaritzaren eskumenak, funtsean, gizarte-arlokoak dira: osasuna, hezkuntza eta gizarte-prestazioak dira aurrekontuaren zatirik handiena hartzen dutenak. Administrazio guztiei gastua hedatzeko eskatu bazaie, nabarmenagoa zen hori Eusko Jaurlaritzak egin behar zuela bere

aurrekontuaren ezaugarriak kontuan hartuta, baina ez da horrela izan. Osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi larriaren testuinguruan, BPGaren %9,4ko beherakadarekin, gobernuek gastu publikoaren igoera handiaren bidez erantzun behar dute, osasun- eta hezkuntza-sektorea indartzera, pobrezia desagerraraztera edo krisi ekonomikoaren ondorioz sortutako ahultasun-egoerak arintzera bideratuta. Eusko Jaurlaritzak ez du egoerak eskatzen zuen erantzun antiziklikorik eman.

Gainera, gastua ez handitzeko aitzakiarik gabe geratu da; izan ere, Europar Batasunean 2020rako eta 2021erako zerga-arauak bertan behera geratu dira. Arau horiek, indargabetu egin behar direnak, ez dira aldi baterako eten behar, eta gobernuak bere aurrekontua gehiago ez handitzeko erabili ohi zuen aitzakia ziren. 2020an eta 2021ean ez dago aitzakiarik. Eusko Jaurlaritzak bere aurrekontua gehiago handitzen ez badu, nahi ez duelako da.

Horri gehitu behar zaio bilketaren galera aurrekaririk gabeko zor-jaulkipen batekin konpentsatu dela, eta datorren urtean 2020koa gaituko duela. Eusko Jaurlaritzaren estrategia argia da, erreforma fiskalari uko egitea eta zorpetzearen alde egitea. ELA ez dago zorpetzea epe laburrean tresna gisa erabiltzearen aurka. Hala ere, zerga-erreforma bat eskatzen dugu, zerga-bilketa handituko duena, errenta altuek, kapitalak, ondareek eta enpresek beren mozkinengatik ordaintzen dituzten zergen igoera nabarmenaren bidez.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA